BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3128

EBAZPENA, 2012ko ekainaren 19koa, Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariarena, urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren babespean 2011ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzekoa. Dekretu horren bidez, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen da.

Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen duen urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren 25.1 artikuluan honelaxe xedatzen da: «Bai Europako Erkidegoko funtsetatik datozen laguntzetarako eskabideak bai Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik datozen laguntzetarako eskabideak elikagai-industrien eskumenak dituen zuzendaritzan aurkeztu beharko dira. Denak aldi berean aurkeztu beharko dira, beranduenera jota hurrengo urteko otsailaren 15ean, alegia, eskabidea zein urtetarako den, hurrengo urteko egun horretan beranduenera ere».

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko uztailaren 21eko Aginduaren bidez, fruta– eta barazki-ekoizleen antolakundeei 2011. urtean emango zaizkien laguntzen guztizko zenbatekoa eman zen aditzera.

Behin laguntzak esleituta eta ebazpenak esleipendunei jakinarazita, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49. artikuluaren 2. paragrafoko bigarren idatzi-zatian eta urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren 25.4 artikuluan ezarritakoa betez, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren babespean 2011ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzea. Dekretu horren bidez, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen da.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jar diezaiokete Arrantza eta Elikagaien Industriako sailburuordeari, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 19a.

Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendaria,
AMAIA BARRENA TELLERÍA.

ERANSKINA

Urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren babespean 2011ko ekitaldian emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda. Dekretu horren bidez, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen da.

	NBEUF laguntza	Eusko Jaurlaritzaren laguntza	Guztira
Barrenetxe Sdad. Coop.	96.746,78 €	48.828,23 €	145.575,01 €
Garaia Sdad. Coop.	127.591,46 €	62.239,74 €	189.831,20 €